

## 02/2014 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2014KO OTSAILAREN 24EAN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### BERTARATUTAKOAK:

##### ALKATEA:

Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa

##### ZINEGOTZIAK:

Maialen San Sebastian Kortajarena

Izaskun Jáuregui Saizar

Aitor Gurrutxaga Aranzasti

Aratz Luisa Urkola

Miren Josune Eizmendi Manterola

Kepa De la Iglesia Sánchez

M<sup>a</sup> Carmen Egurza Salaberria

##### IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

Anoetako udaletxean, 2014ko otsailaren 24ean arratsaldeko seirak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa Alkate jaunaren Lehendakaritzapean eta alboan adierazitako zinegotziekin; Mikel Ayerbe Gallurralde zinegotzia lana dela eta ezin etorria adierazi du, eta Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea, Idazkari lanetan aritu naiz.

#### 1.- 2013KO AZAROAREN 25EAN ETA 2014KO URTARRILAREN 27AN OSPATURIKO AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

2013ko azaroaren 25ean eta 2014ko urtarrilaren 27an ospaturiko aktak irakurri eta aho batez onartuak izan dira.

#### 2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2014KO URTARRILAREN 17TIK OTSAILAREN 14A BITARTE, 15 ZENBAKITIK 66 ZENBAKIRA BIAK BARNE.

2014ko urtarrilaren 17tik otsailaren 14a bitarte, 15 zenbakitik 66 zenbakira biak barne, bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, Korporakideek jakinaren gain geratuz.

#### 3.- 2012 EKITALDIAN, EVEK EMANIKO DIRULAGUNTZAREN ZATI BATI BAXA EMAEKO PROPOSAMENA.

Ente de la Energía, EVE, 32.992,00 €ko diru-laguntza eman zuen 2012an, udaletan energia-eraginkortasuna sustatzeko laguntza-programaren barruan, “Kanpo argitegia kontsumo baxukoaz ordezkatzeari” inbertsio-proiektua finantzatzeko. Horri buruzko espedientea aztertu da.

2014ko urtarrilaren 28an, aipatutako Entitateak jakinarazi digu justifikatutako inbertsioa txikiagoa dela 2012an diru-laguntza jasotzea eragin zuen inbertsioa baino, eta, beraz, erabaki dutela hasiera ematea esleitutako diru-laguntzaren ezeztatze partzialaren prozedurari, 424,00 €ko kopuruagatik.

Bertaratutakoek aho batez erabaki dute baja ematea 2012ko Aurrekontuaren Likidazioan onartutako obligazioari, R 510/2012, 424,00 €ko kopuruagatik.

**4.- 2012 KO URRIAREN 31N PEDRO M° ESTANGA ETA CONSTRUCCIONES ABURUZA S.A ENPRESAREN ARTEAN SINATUTAKO KONTRATUAN ZEHAZTUTA DATOZEN 3.1 “BEHEKO SOLAIRUKO LOKALA” PUNTUKO HOBKUNTZAK ALDATZEA (ADJUDIKAZIO LEHIAKETA DELA ETA AURKEZTUTAKO ESKAINTZAREN MEMORIA TEKNIKO). KONTRATU HORREN XEDEA: CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.A ENPRESARI ESLEITZEA UDALAREN LURZORUA, ERAIKITZEKO ESKUBIDEAREKIN, ANOETAKO A-14 “LASARBE” SEKTOREKO RA-C PARTZELAN DAGOENA.**

Aztertu da espedientea, zeinaren bidez A-14 sektoreko RA-C partzelan dagoen udal lurzoru-ondarea besterentzea onartu baitzen, ondoren, 28 babes ofizialeko etxebizitza eta eranskinak (garajeak eta trastelekuak) eraikitzeke, eta baita lurzoruaren salmenta Construcciones Aburuza, S.A enpresari esleitzea.

Aztertu da Udalaren eta Sociedad Mercantil Construcciones Aburuza, S.A enpresaren ordezkari den Pedro M<sup>a</sup> Aburuza Rezolaren arteko hitzarmen zirriborria. Zirriborro horretan ordezkatu nahi dira Construcciones Aburuza, S.A enpresak beheko solairuko udal-lokaletan egitea proposatutako 60.000 €ko hobekuntzak lokal horietan bertan egin beharreko beste lanengatik, hitzarmen zirriborroaren 1. eranskinean aipatzen direnak.

Aztertu da udal aparejadorearen txostena, 2014ko otsailaren 19koa, eta ITTEN, Herriekin lan egiten erakundearen balorazioa.

Bertaratutakoek aho batez erabaki dute honakoa:

Lehena.- Onartzea hitzarmenaren zirriborria eta bere 1. eranskina, akta honekin batera doana 1. agiri gisa.

Bigarrena.- Construcciones Aburuza, S.A. enpresari jakinaraztea, aurkeztutako balorazioaren arabera, udalaren aldeko saldoa aurreikusten dela, 3.731,45 €koa, honela desglosatuta:

- Construcciones Aburuza, S.A. enpresak hitzemandako hasierako kopurua..... 60.000 €
- Liburutegi berrirako lokalean egingo diren lanen aurrekontu berria ..... - 54.497,12 €

- Fatxadako beirazko itxitura (Uglass) gehiegi neurtzea ..... - 1.771,43 €

**DIFERENTZIA ..... 3.731,45 €**

Hirugarrena.- Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa alkateari edo bere legezko ordezkariari ahalmena ematea akordio hau burutzeko beharrezkoak diren agiri publiko edo pribatu guztiak sinatzeko.

**5.- BILDU TALDEAK, “EUSKAL HERRI FEMINISTA ERAIKITZEKO KONPROMISOA” AURKEZTURIKO MOZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Bildu taldeko zinegotzia den Josune Eizmendi Manterola andreak, Bildu taldeak aurkezturiko ondorengo mozioa irakurtzen du:

*“Martxoaren 8a hurbiltzen ari zaigu urtero bezala, Emakumeon Eguna. Urteetako borrokkak gogoratzeko eta ospatzeko aukera ematen digu baina, batez ere, emakumeon egoeraren inguruko hausnarketak partekatu eta balantzea egiteko aukera ona izaten da.*

*Krisiaren itzalpean harro dabilzkigu kapitala eta patriarkatua, lotsarik gabe, mozorroa kenduta. Eta emakumeok orain arte lortutako askatasun eta eskubideak galtzen ari gara, atzeraka goaz. Inboluzio une batean gaude. Historia lineala ez denez, ez goaz beti aurrera; baina historia idatzita ez dagoenez, ezer ez da ezinbestekao, aldaezina. Inboluzio une batean bagaude ere, gure esku dago borroka feminista indartu eta, haizea alde ez izan arren, egoera aldatzea.*

*Emakumeon egungo egoera hitz gutxitan laburbildu beharko bagenu, honela jasoko genuke: lan-merkatuan gero eta biluziago, zaintzaren motxilan gero eta harri gehiago, umetokian bandera espainola ezarrita (Estatuaren lurralde bihurtuta) eta gorputza indarkeria sexistak moretuta. Hori guztia, emakumeon eta familia-eredu heterosexualaren hautua egiten ez dutenen kontrako eraso ideologikoarekin lagunduta: gaiztoak, gaixoak, sorginak eta eroak omen.*

*Egoeraren irakurketa gordinak etsipenean erortzeko baino, egoeraz jabetu eta erantzuna pizteko balio izatea nahiko genuke. Betaurreko eta lupa moreak jantzi, elkarri eskua eman eta atzerapausoak identifikatu eta hauei aurre egiteko prestatu behar dugu. Eta gure bidea egin, guk nahi duguna izateko, euskaldunak, askeak, zernahi. Jostun onen moduan, jos ditzagun emakumeon arteko sare sendoak. Eta zabal dezagun gure sarea eta lana esparru giztietan, esparru sozio-ekonomikoak, kultur arloan, esparru politikoan, erakundeetan. Eta elika ditzagun aliantzak eragile sozial, politiko eta sindikalekin, Euskal Herri euskalduna eta feminista ezerretik eraikitzeko.*

*Gaur, 2014ko otsailaren 24an, martxoaren 8ko Nazioarteko Emakumeen eguna gogoan hartuz, EHBilduk Euskal Herri feministaren helburua bere egin eta borroka feminista indartzeko konpromisoa adierazten du. Gure zeregina da mugimendu feministarekin batera orain arteko borroken lekukoa hartu eta borroka horiei eustea, gure zeregina da erdi lo genituen borrokkak berpiztea, lortutzat genituen eskubideak uste baino errazago gal*

*daitzekegulako, eta gure zeregina da mugimendu feministak irekitzen duen bidea jarraitzea, puzoz pauso, orpoz orpo.*

*Emakume eta gizon askeen Euskal Herria helburu, bide horretan lan egingo dugu erakunde publikoetan, elkarteetan, komunikabideetan eta kalean. Jakitun gara jendartea eraldatzak gure buruak ere eraldatzea esan nahi duela eta, jakitun gara, barne-mailan gauza asko ditugula oraindik lantzeko. Ez gara jendartetik isolatutako erakunde bat eta guk ere ikasi eta landu beharreko alderdi asko ditugu oraindik. Bada, kanpo begira egingo dugun lanaz gain, etxe barruan ere eraldaketa feministaren bidean lan egiteko konpromisoa hartzen dugu”.*

Irakurritako mozioa bozketara eramanez ondorengo emaitza lortzen da:

- ALDEKO BOTUAK: **SEI** (Bildu talde politikoa)
- AURKAKO BOTUAK: **BAT ERE EZ**
- ABSTENTZIOAK: **BI** (EAJ talde politikoa)

Bozketaren emaitza ikusi ondoren, Bildu taldeak aurkezturiko mozioa onesten da.

## **6.- GALDE-ERREGUAK**

EAJ talde politikoko bozeramailea den Kepa De la Iglesia Sanchez jaunak adierazten du Udalaren funtzionamenduan nola ezarri behar den onartu berria den abenduaren 27ko, 27/2013 Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun Legea, eta horri buruz zerbait egin ote den.

Idazkari-Kontuhartzaileak jakinarazten du, bera administrazio orokorreko teknikariarekin batera (AOT) Lege hori aztertuko den ikastaro batera doazela, herrian legea ezartzeko aukerak ikusteko.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko seira keta hogeita minutu direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.